

Miren Azkarate

EHUko Euskara errektoreordea

EHUren egitekoa EA Eren Hizkuntza Politikan

■ Berez erraza da artikulu honen izenburuari erantzuna ematea. Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Politikan, Euskal Herriko Unibertsitateak zein eginkizun duen zehaztea. Bi hitzetan esan daiteke: euskararen egoera normalitzea unibertsitatean. Hori, ordea, gauza jakina da. Kontua beste hau da: nola lortu euskararen egoera normalitzea, euskara maila guztietako erabilerarako gaitu eta eguneroko lan-hizkuntza bihurtzea.

Aztera begiratu, lau aro bereiz ditzaiteke EHUren euskalduntzean:

a) Hasierakoa, sortu zenetik 1985 artekoa, Estatutuak onartu artekoa.

b) Estatutuak onartu zirenetik 1991 artekoa.

c) Goiriaren errektorearen aroa
d) Gaurkoa, hilabete gutxi batzuk baino ez izan arren, hurrengo urteetako ere markatu nahi lukeena.

Lehen aroa (1976-1985)

Hasiera xumea izan zen, hasiera gehienak bezala: baina helburu jakin bat zuten: gizarteari erakustea euskara gai zela Unibertsitateko gaiak irakasteko. Ahalegin horietan esker, 1979-80 ikasturtean, Biologiako lehen urteko osorik euskaraz egin zitekeen.

Goio Montreal errektore zelarik, Zientzia Fakultatean eta Irakasle Eskoletan ezagutu zuen euskalduntzeak bultzadarak handiena. Esan daiteke Unibertsitateari dagokion zeregin nagusiari begiratu zitzaioela, gizarteak behar dituen adituak prestatzeari, alegia. Batez ere Bigarren Mailako Hezkuntza Publikoa euskaldundu beharra zegoenean, mundu horretarako irakasleak prestatu behar zituen Unibertsitateak. Eta helburu horren arabera egin zen lehen euskalduntze-planaren aukera.

1983an, lehen aldiz, euskaraz idaztako lehen doktorego-tesia irakurri zen, euskaraz, Gasteizen Filologia Fakultatean.

Nolanahi ere, euskararen garapena bigarren mailako auzia zen unibertsitate sortu berri hartan. Gogoan izan behar da 1977 eta 1982 artean 14 ikastetxe sortu zirela, irakasleen beharra sekulakoa zela, barneko gatazkarik ere ez zen falta... Hala ere, bada ahaztu eziniko zerbait, euskararen normalizazio garrantzi handikoa gertatu zena: urte horietan, gaur ere bai, Udako Euskal Unibertsitateak udaro ikastaroak antolatzen zituen, eta hor trabatzen ziren gure irakasle bat baino gehiago.

Bigarren aroa (1985-1990)

EHUko Estatutuak euskaldunen oinarriko eskubideak bermatzen dituzte.

Euskara Batzordeak aurkezturik, Gobernu Batzarrak lehen euskalduntze-plan orokorra onartu zuen 1990eko irailean. Plangintza honetan, lehen aldiz, irakasle ez diren langileak ere kontuan hartzen dira eta sartzeko euskalduntze prozesuan, gainerako administrazioetan egiten ari ziren euskalduntze-planekin bat eginez. Baina kontuan izan behar da Unibertsitateak ez duela langile hauek euskalduntzeko dirulaguntzarik jasotzen, eta euskaraz ikasteko liberatzen diren langileen ordezkoak ordaintzeko (40ren bat urtero) ahalegin berezia egin behar duela bere aurrekontuetan.

Bost urteko iraupena duen euskalduntze-plan orokorraren garrantzia azpimarratu beharrik ez dago. Plangintza honen ildo nagusiak aipatzeko:

a) Titulazio bakoitzari hizkuntza-eredu jakin bat ezartzen zaiho:

A = titulazio osoa euskaraz. B1 = lehen eta bigarren zikloko nahitaezko irakasgaiak euskaraz. B2 = diplomatura eta Ingeniaritza Teknikoetan, lehen ikasturtea osorik euskaraz eta hurrengo ikasturteetako nahitaezko irakasgaiak. C = lizentziaturretan, lehen zikloa osorik euskaraz. D = lehen irakasgai euskaraz.

b) Plangintza hori bete ahal izateko urtez urte zerbait irakasle kontratatu beharko litzatekeen zehazten da.

c) Administrazio eta zerbitzuetako langileen egoera ere aztertzen da.

Hala ere, EHUk ez du partida berezirik ezartzen aurrekontuetan plangintza hori aurrera eramateko.

Hirugarren aroa (1991-1995)

Juan Jose Goirieta Gandarias jaun-a hauatatu zuen errektore Euskal Herriko Unibertsitateak 1991ren

duen euskaraz ere emateko irakasleak bikoiztu, eta euskaraz ere eskainiz, gauzatzen dugu euskalduntze-plana. Izan ere, euskararen eta gaztelaren arteko tartek nekez ematen du bestetarako aukerarik. Katalunian edozein irakasle katalanik jakin gabe sartu arren, bi urtean has daitezke katalaz eskolak ematen. Hemen, jakina, pentsaezinezkoa da bi hori urtean lortzea.

Dakizenez, lanpostu elebidun bat ateratzen denean hautagaiak behar duten euskara-maila badutela frogatu behar du. Ondoren etorriko da hizkuntza-proba gainditu duten artean meritu handieneko hautagaia proposatuko duen Ebaluazio Batzordearen lana.

32. Arestian esan dudanaren ondorioz, irakaskuntza bera ere bi adar paralelotan dago antolatua: euskal adarrak / erdal adarrak. Egia da euskal adarrak ez direla osorik garatu, nahiz aurrerapauso sendoak eman. Baina azpimarratu nahi nuen hau: euskaraz ematen hasi direnak; etorkizunean, euskal euskaraz eta erdaraz emateko kontratatu direnak; lehenagokoak izan arren, eskolak euskaraz ematen hasi direnak; etorkizunean, euskal euskaraz eta erdaraz emateko kontrata daitezkeenak.

—Administrazio eta Zerbitzuetako langileentzat Administrazioak egingo duen bigarren plangintzaldian sartu.

—Euskararen Institutua sortu: terminologia; irakasle eta AZPkoen prestakuntza; hizkuntzaren zuzentasuna.

—Euskararen erabilera bultzatzeko kanpainak.

2. **Kezak**

Azkenik, labor bada ere, bost hilabete hauetan jaso ditudan kezka-pare baten berri eman nahi dizuet.

a) Euskal adarrak / erdal adarrak orain arte bezala bereizten jarraitu behar al da? Euskal adarreko irakasleek izango al du aukerarik nahi duenean erdal adarreko irakasgaia hartzeko? Eta, alderantziz, erdal adarra hautatu arren, euskaraz dakien irakasle izan al dezake irakasgai bat edo beste euskaraz ikasteko modurik?

b) Jakintza-arlo guztietako testuliburuak itzuli behar al ditugu, ala teknikoak itzuli beharrik ez dago? Hau da, duela gutxi mahainguru batean esan den bezala, nazioartekoak izan daitezkeen zientzia eta teknika liburuak itzultzea ez da ditugun baliabide apurrei etekinik onena ateratzeko bidea?

Galderak mahai gainean jarri baino ez dut egingo, hurrengo hilabeteetan izango baitugu aukera kontu hauetaz eta beste hainbatez eztabaida lasaia izateko. ■

EHUko hitzalditaren laburpena

EHUko hitzalditaren laburpena

EHUko hitzalditaren laburpena

Ramon Labaien



Errealitateak

○ por giroa Errioxan, Euskaldunak xoko guztietan, mahastiak eguzkipean arno berriaren prestaketan eta Nafarroako Errege Zaharrak, pakean beraien hilobietan, betidaniko oroinen. Landa hau ere izan zela, behin, Euskal-Herri. Eta gu, Euskaldunak, gure betiko bikotean. ETaren errepikatze odoltsu eta mingarri hortan, nola ez, batetik. Espainiako komunikabideek egunero lehen orrietan azaltzen duten hori. Ke-laino gisa, gure eguneroko beste betikoak gutxietan aipatzen den eta ikilean sortzen ari den errealitate berria izkutatzen. Gaur egun, Euskal-Herria, prozesu historiko baten kontrara jartzean, errealitate dugu berriro. Ez da kontzeptu bat, ez da mito bat, ez nostalji bat, errealitate bat da. Marruka ari dena, askotan latza eta gordina. Hor dagoen zerbait, Espainiako Estatuan denok ikusten dutena, Gu Euskaldunok ezik, noski, Gaur Madrilen zurtzat dute, bai Politikaren munduan, bai Indar Armatuetan, bai Kultura eta Diruaren alorretan, ez dela funtsezko deusik posible izanen Espainiako Estatuan, Euskal-Herria eta Katalunia jokuan ez badira sartzen. Hortik, gero eta handiago dugun negoziatzeko ahaltasuna. Hortaz profitezaren eskuetan dago, neurri handi batean, Euskal-Herriaren etorkizuna.

Xillardegia



Moyano - Buesa

○ rereitako Herri Mogimenduen argitaratu berri duen *Oretera 96* liburua iritsi da ene eskuetara. Eta astindu egin nau erraieraraino. *Pública-Privada* asmazio makiavelikorean eraginak hortxe baitaude, gure herriaren eraikuntza errotik poizunduz eta ezinduz.

Moyano eta Buesa lider ultra-inperialen zuzendaritzapean, (baina behin ere barkagarri izango ez den PNVaren plangintzarekin) eten egin zen ikastolaren herri-mogimendu miresgarria. *Behar ekonomiko-finantziariek* eragina, *leyes de armonización inter-regional* batzuk tianttaka atera; eta espainolen fabrika nagusia, eskola, prest.

Ez naiz xehetasunetan barrena abiatuko: hobeiki ezagutu behar nituzke horretarako Oreterako gorabererak. Mintza bedi nire orde X. Oleaga, Oreretako ikastolako lehendakaria: «In-darrenean jarritako Euskal Eskola Publikoaren legeak *infernura zigortzen* du Administrazioaren sarean sartu gabe ikastolen autonomia histori-koari eusten jarraitzea erabaki duen zenitro oro».

Alegia: marko estatala onartu, ala diru-azotan hil. Eta hori aski ez bada, gerra zikina.

Demokrazia omen da hori. Baina aparato politikoko osoreen saldukeria hori egonik ere, oso adierazgarriak dira datorren urteko matrikulazio-kopuruak. *Sektore publiko* bataiatutakoan, % 75 ikasle ariko dira D eredu euskaldunean; % 24, B elebidunean. Hori 3 urte artekoetan.

Joera ere azkarra agertzen da 2 urtekoetan: % 82 D erudian, eta % 17 B erudian. A eredu espainolista, hitz batez, Madrilaren eta botere autonomikoaren bedekiazioa izan arren, zulora doa: % 1 besterik ez. Berriro ere, euskal herria aparato politikoren aurka.